Agintariak eta Langileria

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2290

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 7koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) zuzendariarena. Honen bidez euskara ikastaroetarako deia egiten zaie IVAPekin Lankidetza Hitzarmena duten herri-erakundeetako langileei, 2009-2010 ikasturterako.

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– IVAPekin Lankidetza Hitzarmena duten herri-erakundeetako langileentzako 2009-2010 ikasturterako lehenengo hiru hizkuntza-eskakizunen araberako ikastaro-deialdia onartzea, I. eta II. eranskinetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 7a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
JON KOLDOBIKA URRUTIA MINGO.

I. ERANSKINA

OINARRIAK

Lehenengoa.– Helburua.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetako langileen hizkuntza-gaikuntza eragin eta bultzatzea.

Bigarrena.– Nori zuzendua.

Deialdi honetan parte har dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetako langileek, baldin eta euren erakundeak IVAPekin Lankidetza Hitzarmena sinatua badu, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak 2005eko azaroaren 30ean eman zuen Aginduaren arabera. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua; eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak (EHAA: 2005-12-19).

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Osakidetzako langileak.

Autoridades y Personal

Cursos de Formación y Perfeccionamiento

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2290

RESOLUCIÓN de 7 de abril de 2009, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), por la que se convoca a los cursos de euskera de 2009-2010 al personal de los entes públicos con convenio de colaboración con el IVAP.

RESUELVO:

Artículo único.– Aprobar la convocatoria de cursos para los tres primeros perfiles lingüísticos dirigidos al personal de los entes públicos con convenio de colaboración con el IVAP durante el curso 2009-2010, de acuerdo con lo dispuesto en los anexos I y II.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de abril de 2009.

El Director del Instituto Vasco de Administración Pública,
JON KOLDOBIKA URRUTIA MINGO.

ANEXO I

BASES

Primera.– Objetivo.

Promover e impulsar la capacitación lingüística del personal de los entes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca.

Segunda.– Personal destinatario.

Puede participar en esta convocatoria todo el personal de los entes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca que tengan firmado un convenio de colaboración con el IVAP siguiendo la Orden de 30 de noviembre de 2005, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, por la cual, por una lado, se regula el servicio de la formación lingüística que ofrecerá el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) a los entes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca; y, por otro, se fijan las normas para recibir ayudas para la sustitución de empleados municipales que asistan a los cursos de euskera (BOPV de 19-12-2005).

Queda al margen de esta convocatoria el personal perteneciente a Osakidetza.

IVAPek hizkuntza-prestakuntza emango du bere aurrekontu-bitartekoen barruan. Baliabide horiek nahikoak ez balira eskaera guztiak hartzeko, aipatutako 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako lehentasunen hurrenkera jarraituko da.

Hirugarrena.– Ordu-kreditua.

Deialdi honetara biltzen diren eskariek ordu-kredituen sistema izango dute ezarria, 2005eko azaroaren 30eko Aginduak dioenaren arabera.

Agindu horren 6. artikuluak ezarritakoari jarraiki, euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea.

Hori horrela dela ziurtatzeko, IVAPek ordu-kredituaren kontrola egingo du, eta saldo negatiboa duten eskaera guztiak bertan behera utziko ditu.

Laugarrena.– 2009-2010 ikasturterako ikastaro-deialdiak.

2009-2010 ikasturterako IVAPek bi deialdi kaleratuko ditu:

Honako hau 2009-2010 ikasturteko deialdi nagusia da, ikasturte osoa arautzen duena, alegia.

Datorren azaroan, oraingo honen deialdi osagarria kaleratuko du IVAPek, eta 2009-2010 ikasturteko bigarren lauhileko eskaintza egingo du.

Azaroko deialdian, otsailetik ekainera arteko eskaera egin ahal izango dute interesatuek. Ikasle berrien kasuan, bost orduko taldeetarako edo barnetegirako eskaera egin behar izango dute. Urritik hasitako ikasleen kasuan, aldiz, moduluaren aldaketa eskatu ahal izango dute, hau da, modulu trinkoetatik (5 ordukoak, barnetegia) 2 orduko modulura edo alderantziz.

Beraz, urrian hasi ez direnek ezin izango dute bost ordutik beherako ikastarorik eskatu azaroko deialdian.

Bosgarrena.– Eskolen antolaketa: administrazioko ikastaldeak eta matrikula orriak.

IVAPek administrazioko ikastaldeak osatuko ditu administrazioko langileekin soilik. Talde horiek, ordutegi jakin batzuetan eta hiriburuetan antolatuko ditu. Talde horien ezaugarriak (ordutegi eta egutegiak) II. eranskinean daude jasota. Ezaugarri horiekin bat datozen eskaerak eta hiriburuetako ikastaro trinkoetarako lanorduetako eskaera guztiak administrazioko ikastaldeetara bideratuko ditu IVAPek. Taldeak osatu eta euskaltegiak izendatuta daudenean, IVAPek herri-erakunde bakoitzari zerrenda bat helaraziko dio zehazteko non eta noiz eskolatu behar duen langile bakoitzak.

El IVAP ofertará la formación lingüística dentro de sus disponibilidades presupuestarias. Si los recursos mencionados no son suficientes para atender todas las peticiones, se guardará el orden de prioridades establecido en el artículo 3 de la Orden 30 de noviembre de 2005.

Tercera.– Crédito horario.

Todas las solicitudes que se realicen dentro de esta convocatoria deberán cumplir el requisito del crédito horario, tal y como lo establece la Orden de 30 de noviembre de 2005.

De conformidad con lo establecido en el artículo sexto de dicha Orden, para poder iniciar un curso de euskera será necesario tener un saldo de crédito horario positivo.

Para asegurarse de que este requisito se cumple, el IVAP controlará el saldo de crédito horario, y desestimará las solicitudes de aquellas personas que tengan el saldo de crédito horario negativo.

Cuarta.– Convocatorias para el curso 2009-2010.

El IVAP publicará dos convocatorias para el curso 2009-2010:

La presente convocatoria es la convocatoria principal, correspondiente al curso 2009-2010, que regula todo el curso escolar.

La oferta para el segundo cuatrimestre del curso 2009-2010 se hará mediante una convocatoria complementaria a ésta, que será publicada el próximo mes de noviembre.

En dicha convocatoria de noviembre se podrá solicitar la escolarización a partir de febrero, pero únicamente para cursos de cinco horas o internados. También se podrá solicitar el cambio de módulo iniciado en octubre, siempre que sea de un módulo intensivo (cinco horas semanales, internado) al módulo de 2 horas o al revés.

Por lo tanto, las personas que no hayan comenzado las clases en octubre no podrán solicitar cursos de menos de cinco horas semanales en la convocatoria de noviembre.

Quinta.– Organización de las clases: grupos propios de la Administración y hojas de matriculación.

El IVAP formará grupos compuestos únicamente por personal de la Administración. Las clases se impartirán en las capitales y tendrán unos horarios concretos. Las características de dichos grupos (horario y calendario escolar) están recogidas en el anexo II. Todas las solicitudes que reúnan dichas características serán organizadas por el IVAP en los citados grupos. Una vez conformados dichos grupos y asignados los correspondientes euskaltegis, el IVAP hará llegar a los entes públicos correspondientes la lista del personal que se escolarizará en grupos propios de la Administración, especificando dónde y cuándo darán comienzo las clases.

Bestalde, barnetegia edo beste ordutegirik nahiz beste herririk eskatzen dutenei, baita administrazioko ikastalderik ez duten eskatzaileei ere, matrikula orria bidaliko die IVAPek. Matrikula orriak erakundeetara bidaliko ditu zuzenean; eta, horrela, langileek nahi duten euskaltegi publiko edo pribatu homologatuan izena eman ahal izango dute. Matrikula orriaren bitartez eskolatzen den langileak euskaltegiaren egutegia eta ordutegia jarraituko ditu. Barnetegietako ikastaroen ezaugarriak II. eranskinean daude jasota.

Seigarrena.– Administrazioko ikastaldeetako mailaketa.

Administrazioko ikastaldeetako eskatzaileak taldekatzeko, ezinbestekoa izango da eskatzailearen mailaren berri izatea. Hori dela eta, eskatzailea azken ikasturtean ibili bada IVAPekin eskolatuta, azken ebaluazioaz baliatuko da IVAP hurrengo hasiera maila ezartzeko.

Aldiz, eskatzailearen mailaren berri ez badu, mailaketa proba egitera deituko du IVAPek, eta proba horren emaitzaren arabera kokatuko du taldeetan.

Administrazioko ikastaldeetara ez doazen eskatzaileak, berriz, ez ditu deituko IVAPek; beharrezkoa izango balitz, eurek aukeratutako euskaltegian egingo liekete mailaketa proba.

IVAPek herri-erakunde bakoitzari jakinaraziko dio mailaketa proba nork egin behar duen, baita non eta noiz egin behar duen ere.

Mailaketa proba egitera deitu arren eskatzailea aurkezten ez bada ezarritako egunean eta orduan, IVAPek bazter utziko du haren eskaera.

Aurkeztu ez den eskatzaileari aparteko deia egiteko aukera aztertuko du IVAPek, baldin eta aurkeztu ez izana egokiro arrazoitzen badio eskatzailearen herri-erakundeak IVAPi, idatziz eta, beranduen ere, proba egunetik 2 egun balioduneko epean.

Aparteko dei honetara ere aurkezten ez bada eskatzailea, bertan behera utziko du IVAPek haren eskaera.

Zazpigarrena.– Matrikula orriak.

7.1.– Matrikula orria erabiltzeko baldintzak:

Eskatzaileak egin duen matrikula IVAPek ordainduko du, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Matrikula orria garaiz entregatu behar da euskaltegian: ikastaroa hasten denerako matrikula orria euskaltegian aurkeztu behar da. 2009ko urriaren 23a baino beranduago entregatzen bada, IVAPek ez du matrikula ordainduko.

Por otro lado, el IVAP responderá a las personas que hayan solicitado estudiar en centros de internado o en otros horarios o en otras localidades, enviando a los correspondientes entes la hoja de matrícula para que puedan inscribirse en el euskaltegi público o privado homologado que deseen. Las personas escolarizadas con la hoja de matrícula seguirán el horario y el calendario del euskaltegi correspondiente. Las características de los cursos de barnetegi están señaladas en el anexo II.

Sexta.– Asignación de niveles para grupos propios de la Administración.

Para la creación de los grupos propios de la Administración es necesario que el IVAP disponga de información sobre el nivel lingüístico de la persona solicitante. Por lo tanto, si ésta ha sido, por medio del IVAP, alumna durante el último curso escolar, el IVAP dispondrá de los datos de la última evaluación para concretar el siguiente nivel inicial.

Si, por el contrario, el IVAP no dispone de información al respecto, se le convocará para la realización de una prueba de nivel y organizará los grupos según los resultados obtenidos.

Aquellas personas solicitantes que no vayan a formar parte de los grupos propios de la Administración no serán convocadas, ya que, si fuera necesario, el propio euskaltegi realizaría dicha prueba de nivel.

El IVAP informará a cada ente público de todas las personas que han de realizar la prueba de nivel, así como del lugar y la fecha en la que se realizarán dichas pruebas.

El IVAP desestimará las solicitudes de las personas interesadas que no acudan a realizar la prueba de nivel el día y la hora a la que han sido convocadas.

De manera excepcional, el IVAP considerará la oportunidad de convocar nuevamente al personal interesado cuando éste justifique su inasistencia a la prueba de nivel, por escrito y en un plazo máximo que será de 2 días hábiles posteriores a la realización de la misma, mediante notificación razonada al IVAP a través del ente público correspondiente.

El IVAP dará de baja la solicitud de aquellas personas que no se presenten a esta convocatoria excepcional.

Séptima.– Hojas de matrícula.

7.1.– Condiciones para el uso de la hoja de matrícula:

El IVAP cubrirá el pago de la hoja de matrícula, siempre y cuando se cumplan las siguientes condiciones:

a) La hoja de matrícula ha de ser entregada dentro del correspondiente plazo: la hoja de matrícula deberá ser presentada en el euskaltegi antes del inicio del curso. El IVAP no se hará cargo del pago de aquellas hojas de matrícula entregadas con posterioridad al 23 de octubre de 2009.

b) Gutxieneko ordu kopurua: lanorduetan egiten den ikastaroak 240 ordu iraun behar du gutxienez.

c) Gutxieneko iraupena: Barnetegiko eta egunean 5 orduko ikastaroek gutxienez lauhileko iraupena izan behar dute. Bestelakoak, ordea, urritik ekainera bitartekoak izan behar dira.

d) Homologazioa: matrikula orriaren bidez egingo den ikastaroa HABEk homologatua izan behar da.

7.2.– Matrikula orria ordaintzea:

Matrikula orria erabiltzeko baldintzak bete ezean, IVAPek ez du bere gain hartuko haren ordainketa, eta ukapenaren berri emango dio langilearen erakundeari. Alabaina, baldintza horiek betetzen direla baieztatzen bada, IVAPek langilearen matrikula onartu eta dagokion kostua ordainduko du.

Matrikula orria ordainagiri baten parekoa da eta, horregatik, langilea inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du matrikula orria IVAPera; baina, betiere urriaren 23a baino lehen.

Kontuan izan behar da, behin matrikula orria onartuta, IVAPek matrikulari dagokion kostua ordaindu egin behar duela; eta, horregatik, diru-baliabideen erabilera zentzuzkoa eta arrazoizkoa ziurtatu ahal izateko, langileek aprobetxamendu egokia izan beharko dute ikastaroetan.

Zortzigarrena.– Eskoletan hastea.

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskoletan. Didaktika eta antolakuntza arrazoiengatik, IVAPek ez du onartuko urriaren 23tik ondoren hasterik eskoletan.

Urriaren 23a iragan ondoren, IVAPek bertan behera utziko ditu eskoletan hasi ez diren langileen eskaerak.

8.1.– Gaixotasunak eragindako beranduko eskolatzeak:

Bakar-bakarrik gaixotasunak eragindako arazoengatik eskoletan hasi ez diren langileei onartuko die IVAPek berandu hastea, betiere horretarako dituen bitartekoen mugapean.

Baldintza hauek bete beharko dira berandu eskolatu ahal izateko:

a) IVAPek aldez aurretik jakin behar du langilea ez dela eskoletan garaiz hasiko gaixotasunagatik. Horretarako, ikastaroaren hasieran, herri-erakundeek egoera horretan dauden langileen zerrenda bidali behar dute IVAPera. Zerrendan NAN zenbakia eta izen-abizenak zehaztu behar dira.

b) Eskoletan hasi ahal izateko eskaera egitea: langilea ezin da bere kabuz eskoletan hasi gaixoaldiaren ondoren. Eskoletan hasteko prest dagoenean, bere herri-era-

b) Horas mínimas: el curso realizado en horario laboral ha de tener una duración mínima de 240 horas.

c) Duración mínima: los cursos intensivos que se realicen en internado o los cursos de 5 horas diarias serán, como mínimo, cuatrimestrales. El resto de los cursos comenzará en octubre y finalizará en junio.

d) Homologación: los cursos formalizados en la hoja de matrícula serán siempre cursos homologados por HABE.

7.2.– Pago de la hoja de matrícula:

En caso de que la hoja de matrícula no reúna las condiciones exigidas, el IVAP no se hará cargo de su coste, informando de dicha circunstancia al ente correspondiente. Tras comprobar que se cumplen todas las condiciones exigidas, el IVAP aceptará dicha hoja de matrícula y se hará cargo de su coste.

La hoja de matrícula tiene el mismo valor que un recibo y, por lo tanto, aquellas personas que no se matriculen en ningún curso, deberán devolver cuanto antes al IVAP dicha hoja de matrícula, en cualquier caso antes del 23 de octubre.

Hay que tener en cuenta que una vez de que el IVAP acepte la hoja de matrícula abonará la cantidad correspondiente a la misma, y, por lo tanto, al objeto de garantizar un uso racional de los recursos económicos, se deberá obtener un aprovechamiento adecuado en el curso.

Octava.– Inicio de los cursos.

El personal deberá incorporarse a clase el primer día del curso. Teniendo en cuenta tanto razones didácticas como de organización de cursos, el IVAP no aceptará las incorporaciones posteriores al 23 de octubre.

Asimismo, el IVAP dará de baja las solicitudes de aquellas personas que no se hayan incorporado a los cursos con anterioridad al 23 de octubre.

8.1.– Incorporación tardía motivada por enfermedad.

El IVAP únicamente aceptará la incorporación tardía en los cursos al personal que por motivos de enfermedad no haya podido iniciarlos a tiempo, teniendo en cuenta siempre la disponibilidad de los recursos.

Para poder iniciar los cursos una vez comenzados, se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) El IVAP deberá tener constancia con antelación de aquellos alumnos y alumnas que no puedan incorporarse a principio del curso por motivo de enfermedad. Para ello, los entes públicos correspondientes deberán enviar al inicio del curso al IVAP un listado de las personas que se encuentren en esa situación. En dicho listado tendrán que especificar el número del DNI, además del nombre y los apellidos.

b) Se deberá solicitar la incorporación tardía a los cursos: el personal, tras el periodo de enfermedad, no podrá incorporarse a los cursos sin previo aviso. Una

kundeak eskolatzea eskatu beharko dio IVAPi idatziz. Idazki horretan gaixoaldiaren hasiera eta bukaera egunak zehaztu beharko ditu.

c) Lanorduetako eskatzaileen kasuan, ez da berandu eskolatzerik onartuko, baldin eta, eskolatu nahi dutenerako jadanik igarota badago ikastaro osoko orduen % 20a.

Edozelan ere, gaixotasunagatik ikastaro hasieran galdutako orduak zenbatu egingo dira eta eragina izango dute ordu kredituari begira.

Bederatzigarrena.– Lanorduetako eskoletara joatea eta gutxieneko asistentzia.

Ondorio guztietarako ikastegia lantokia da langilearentzat. Beraz, eskolatze eta puntualitate huts guztiak herri-erakundearen aurrean justifikatu beharrekoak dira beste edozein laneratze huts zuritu ohi den bezalaxe.

Euskara ikastaroetara joateko baimena ematea herri-erakundearen ardura denez, beroni dagokio baimendutako epean langileen etenik gabeko eskolatzea bermatzea.

Era berean, herri-erakundeen ardura izango da ikastaroetan parte hartuko duten langileek ikastaroak dirauen epetik kanpo hartzea beren oporrak, ikastaroen aprobetxamenduan kalterik izan ez dadin.

Euskara ikastaroen aprobetxamendua bermatu eta horretarako langileen eskura jartzen diren giza eta diru baliabideak optimizatzeko asmoz, euskara ikastaroetan diharduten ikasleek gutxieneko asistentzia izan beharko dute ikastaroetan.

Horregatik, arau orokor modura honako neurri hau ezartzen da: ikasleek gutxienez % 80ko asistentzia izan beharko dute diharduten ikastaroan.

Eskola-hutsegiteak ikastaroaren hasiera egunetik bertatik zenbatuko dira, nahiz eta ikaslea berandu hasi ikastaroan.

Hamargarrena.– Eskoletara joateari uztea.

Ikasleak ikastaroa behin betiko uzten duenean, ez badu horren berririk ematen, ordu kreditua agortzen jarraituko du. Hori dela eta, eskola uztea gertatzen den momentuan, bere prestakuntzaz arduratzen diren eragileei jakinarazi egin beharko die:

– Euskaltegiari: ikasleak ikastaroa utziko duela jakinarazi beharko du euskaltegian. Horrela, modu egokian sartu ahal izango dute euskaltegian zein izan den ikaslearen azken eguna, eta data horretatik aurrera ez da asistentzia-datu gehiagorik jasoko.

vez de que estén en disposición de incorporarse al curso, los entes públicos correspondientes deberán solicitar por escrito al IVAP dicha incorporación. Será necesario especificar en dicho escrito las fechas de inicio y finalización del periodo de baja por enfermedad.

c) En el caso de solicitudes para cursos en horas de trabajo, no se admitirá el comienzo tardío de escolarización, si en el momento de la incorporación ha transcurrido un 20% del total de horas correspondiente al curso.

De cualquier manera, las horas perdidas a principio de curso por causa de enfermedad se computarán a los efectos del cómputo del crédito horario.

Novena.– Asistencia a cursos en horario laboral y asistencia mínima exigida.

A todos los efectos, el centro donde se imparte el curso será considerado como centro de trabajo. Por consiguiente, las faltas de asistencia y puntualidad deberán ser justificadas ante los entes públicos correspondientes, al igual que se hace con toda inasistencia laboral.

Dado que la concesión de la autorización para la asistencia a los cursos es competencia del ente público correspondiente, compete a éste garantizar la escolarización ininterrumpida del personal durante el período autorizado.

Igualmente, los entes públicos garantizarán que el personal matriculado en los cursos de euskera adecue sus vacaciones al calendario lectivo, a fin de no perjudicar el aprovechamiento de los mismos.

Con el fin de garantizar el máximo aprovechamiento en los cursos de euskera y la optimización de los recursos tanto humanos como económicos que se ponen a disposición del alumnado, éstos deberán tener un mínimo de asistencia a los cursos de euskera.

En consecuencia, se establecen como norma general los siguientes parámetros de control de asistencia: se deberá tener una asistencia mínima del 80% en los cursos que se realizan.

La inasistencia será computada desde el primer día del curso, aunque la incorporación al mismo se realice más tarde.

Décima.– Abandono de los cursos.

Si una vez iniciado el curso se opta por abandonarlo de manera definitiva, se deberá informar de ello, ya que, de lo contrario, continuará el consumo de crédito horario. Esta comunicación deberá ser realizada a las personas responsables de su formación tan pronto como tenga lugar el abandono:

– Al euskaltegi: el alumno o la alumna deberá informar de su intención de abandonar los cursos al euskaltegi, a fin de que éste introduzca la fecha de baja y no recoja los datos de asistencia.

– Bere herri-erakundeari: ikasleak bere herri-erakundean jakinarazi beharko du egiten ari den ikastaroa utzi egingo duela.

– IVAPi: ikasleak IVAPen ere jakinarazi beharko du ikastaroa utziko duela ordu kredituaren zenbaketa eten dezan. Horretarako, «Jakinarazpena: eskoletara joateari uztea» izeneko inprimakia bete eta, herri-erakundearen izenpea duela, IVAPera bidali beharko du.

Beranduenez ere, eskola uztea gertatu eta 15 laneguneko epean bidali beharko du jakinarazpena IVAPera.

Inprimakia honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

www.ivap.euskadi.net

(euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak)

Hamaikagarrena.– Autoikaskuntzako ikastaroak lanorduz kanpo.

Autoikaskuntzako ikastaroak egin ahal izango dira 2009-2010 ikasturtean lanorduz kanpo. Ikastaro horiek ikasturte osokoak izango dira, hots, urritik ekainera bitartekoak eta euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean, edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean egin ahal izango dira.

Eskaera guztietatik kopuru mugatu bat onartuko du IVAPek; alegia, erakunde bakoitzak egiten dituen lanorduz kanpoko eskaera guztien % 20a, gehienez ere. Beraz, autoikaskuntzako eskaera egiteak ez du ziurtatzen automatikoki eskaera onartuko denik.

Honatx ikastaro horiek betebeharreko ezaugarriak:

1.– Ikastaroek gutxienez 190 orduko iraupena izan behar dute. IVAPek matrikula bakarra ordainduko dio ikasleari.

2.– Gutxieneko iraupena: ikastaroak urritik ekainera bitartekoak izan behar dira.

3.– Matrikula non egin: euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean, edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean.

4.– Homologazioa: autoikaskuntzako ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.

5.– Autoikaskuntzako ikastaroak bi modalitate hauetako batean egin ahal izango dira:

a) Internet erabilita: modalitate honen arabera, ordenagailuko bakarkako lana internet bidez egin ahal izango da. Aldiz, mintza-orduak euskaltegian, edo autoikaskuntzako zentroan, hartuko dira.

b) Euskaltegira, edo autoikaskuntzako zentrora joanda: ikastaro osoa euskaltegian bertan, edo autoikas-

– Al ente público correspondiente: deberá informar al ente público correspondiente del abandono de los cursos que está realizando.

– Al IVAP: deberá informar al IVAP del abandono de los cursos a fin de que se detenga el cómputo del crédito horario. Para ello, deberá remitir al IVAP el impreso denominado «Notificación: abandono de los cursos» debidamente cumplimentado y con el Visto Bueno del ente público que corresponda al empleado.

Esta comunicación deberá realizarse como muy tarde pasados 15 días laborales desde que se abandona dicho curso.

Este impreso de notificación de abandono de los cursos se encuentra disponible en la siguiente dirección electrónica:

www.ivap.euskadi.net

(euskera > cursos de euskera > impresos)

Undécima.– Cursos de autoaprendizaje fuera del horario laboral.

Se podrán realizar cursos de autoaprendizaje fuera del horario laboral durante el curso 2009-2010. Estos cursos comenzarán en octubre y acabarán en junio, y se realizarán en un centro de autoaprendizaje homologado o en un euskaltegi público o privado homologado.

El número de autorizaciones de acceso al sistema de autoaprendizaje fuera del horario laboral no podrá ser superior al 20% del total de las solicitudes realizadas por cada entidad para la formación lingüística fuera del horario laboral. Por lo tanto, es preciso tener en cuenta que el hecho de enviar la solicitud al IVAP no garantiza automáticamente su admisión.

Las características de estos cursos de autoaprendizaje serán las siguientes:

1.– Tendrán una duración mínima de 190 horas. El IVAP financiará una única matrícula.

2.– Deberán comenzar en octubre y finalizar en junio.

3.– La matricula se realizará en un centro de autoaprendizaje homologado o en un euskaltegi público o privado homologado.

4.– Homologación: los cursos de autoaprendizaje estarán necesariamente homologados por HABE.

5.– Los cursos de autoaprendizaje podrán realizarse mediante cualquiera de estas dos modalidades:

a) Internet: el trabajo personal con el ordenador se podrá realizar mediante internet. Las clases de conversación tendrán lugar en el euskaltegi o centro de autoaprendizaje.

b) Euskaltegi o centro de autoaprendizaje: tanto el trabajo personal con el ordenador como las clases de

kuntzako zentroan, egin ahalko da, bai ordenagailuko bakarkako lana eta bai mintza-orduak ere.

IVAPek matrikula orri bakar bat emango die eskaera onartu zaien langileei, matrikula orri berezia hain zuzen. Autoikaskuntzan matrikulatzeko, orri berezitu hori bakarrik erabili ahalko da.

Ez da onartuko autoikaskuntzako matrikula orriaren bitartez ikastaro presentzialetan matrikulatzerik, ezta alderantziz ere, hau da, ikastaro presentzialei dagokien matrikula orriaren bitartez ezingo da autoikaskuntzan matrikulatu.

Autoikaskuntza ikastaroan dabiltzan ikasleen kasuan, asistentziak hiru hilerik behin jasoko dira. Ondorioz, ordu-kredituaren saldoa epealdi horien arabera eguneratuko zaie.

Hamabigarrena.– Eskabideak.

12.1.– Eskabideak egiteko epea: eskabideak IVAPera bidaltzeko, deialdia argitaratzen denetik maiatzaren 31ra bitarteko epea du eskatzailearen erakundeak. Horretarako, erakundeak bidaltzen duen komunikazioaren irteera data hartuko da kontuan.

12.2.– Inprimakia: eskabideak egiteko, ondorengo helbide elektroniko honetan jaso daiteke inprimakia:

www.ivap.euskadi.net

(euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak)

12.3.– Eskabidea nora: eskatzaileak IVAPeko zuzendariari bidaliko dio eskaera ondorengo helbidera: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

12.4.– Bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako langileen eskabideak:

Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako langileek egiaztatu beharko dute gutxienez abenduaren 31ra arteko lan-hitzarmena dutela. Horretarako, lan-hitzarmenaren hasiera eta amaiera egunak adierazi beharko dituzte eskaera orrian.

Hamahirugarrena.– Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa.

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da langileei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion erakundeari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren langileen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu eta herri-erakunde bakoitzari bere langileenak jakinaraziko dizkio.

Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren

conversación se llevarán a cabo en el euskaltegi o en el centro de autoaprendizaje.

El IVAP entregará una única hoja de matrícula a las personas cuya solicitud haya sido admitida, y ésta será específica para la modalidad de autoaprendizaje. Dicha hoja sólo podrá ser utilizada para cursos de autoformación.

En ningún momento podrá ser utilizada la hoja de matrícula de autoaprendizaje para matricularse de un curso presencial, ni al revés, es decir, no podrá utilizarse la hoja correspondiente a los cursos presenciales para matricularse en curso de autoaprendizaje.

En el caso de las personas que estudian en la modalidad de autoaprendizaje, las asistencias se recibirán trimestralmente, por lo que el saldo del crédito horario se actualizará en función a dichas asistencias.

Duodécima.– Solicitudes.

12.1.– Plazo de solicitud: para el envío de solicitudes al IVAP el ente público dispone de un plazo que comienza al publicarse la convocatoria y finaliza el 31 de mayo. Para ello se tomará en cuenta la fecha de salida del envío de la comunicación por parte del ente público correspondiente.

12.2.– Impresos: el impreso para realizar la solicitud se encuentra disponible en la siguiente dirección electrónica:

www.ivap.euskadi.net

(euskera > cursos de euskera > impresos)

12.3.– Entrega de solicitudes: las solicitudes se remitirán al Director del IVAP a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

12.4.– Solicitudes del personal interino y temporal:

En el supuesto del personal interino y laboral, éste deberá acreditar que disfruta de un contrato laboral con dicha administración al menos hasta el 31 de diciembre. Para ello, deberán indicar en la solicitud la fecha de comienzo y fin del contrato.

Decimotercera.– Información sobre el alumnado y protección de datos.

Al objeto de gestionar los cursos de euskera resulta imprescindible recoger, procesar, reunir en un fichero y poner a disposición de los entes correspondientes datos personales del alumnado. Por este motivo, el IVAP recogerá los datos de asistencia y evaluación del personal que reciba formación en euskera tanto en horario laboral como en horario extralaboral, y remitirá a cada ente público los datos referentes a su personal.

El tratamiento de los datos personales recogidos como consecuencia de esta Resolución se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre que regula la Protección de Datos de Carácter Personal, así como en la normativa sobre me-

11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Deialdi honetara biltzen diren langileek onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien herri-erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua). Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari -HABE- (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Langileei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako «Funtzionarioak euskalduntzea» izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastián kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

II. ERANSKINA

BARNETEGIKO ETA ADMINISTRAZIOKO IKASTALDEEN EZAUGARRIAK

1.1.– Barnetegiko ikastaroak.

Zornotzako barnetegian eta Lazkaoko Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira.

Barnetegiko ikastaroen egutegia nahiz ordutegia euskaltegi horien eskaintzaren arabera alda daiteke.

IVAPek matrikula eta egonaldiaren gastuak hartuko ditu bere gain.

1.2.– Bost orduko ikastaroak.

Euskalduntzeko nahiz alfabetatzeko ikastaroak dira. Modulu honek egun osoko lan-liberazioa eskatzen du, eskola orduei lan pertsonalerako behar den denbora gehitu beharra dagoelako.

Iraupena: urriaren 1etik otsailaren 12ra arte. Abenduaren 24tik urtarrilaren 3ra, biak barne, Gabonetako

didas de seguridad de los ficheros automatizados que contienen datos personales, aprobada mediante RD 994/1999, de 11 de junio.

Las personas que participen en esta convocatoria autorizan el procesamiento de datos personales llevado a cabo para el cumplimiento del objetivo de esta Resolución. De igual manera, autorizan la recogida de datos y puesta a disposición de los entes públicos correspondientes la información de su asistencia y evaluaciones así como de los informes sobre su aprovechamiento académico. Autorizan, asimismo, la cesión de estos datos a la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura para la elaboración del informe de evaluación sobre el nivel de cumplimiento del plan de normalización (artículo 6 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). Por último, autorizan la cesión de datos a HABE -Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos, en cumplimiento de lo establecido en la disposición adicional sexta del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Los datos personales sobre el alumnado estarán incluidos en el fichero denominado «Euskaldunización de funcionarios», registrado en la Agencia de Protección de Datos. Todas las personas podrán ejercer su derecho al acceso a los datos del fichero, a la modificación de dichos datos o a su anulación, para lo cual deberán dirigirse a la Secretaría General del IVAP: calle Donostia-San Sebastián 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

ANEXO II

CARACTERÍSTICAS DE LOS GRUPOS PROPIOS DE ADMINISTRACIÓN Y EN RÉGIMEN DE INTERNADO

1.1.– Cursos en régimen de internado.

Los cursos de internado se podrán realizar en el barnetegi de Amorebieta-Etxano y en el euskaltegi Maizpide de Lazkao.

Los cursos en régimen de internado se adecuarán al horario y al calendario de dichos euskaltegis.

El IVAP cubrirá los gastos de matrícula y estancia.

1.2.– Cursos de cinco horas.

Son cursos de euskaldunización y alfabetización. Este módulo precisa una liberación laboral de jornada completa, dado que a las horas lectivas hay que añadir el tiempo que se necesita para el trabajo personal.

Duración: desde el 1 de octubre hasta el 12 de febrero. El periodo comprendido entre el 24 de diciembre y

oporraldia izango da; beraz, horiek ez dira eskola egunak izango.

Modulu honek, betiere, lauhileko iraupena du. Otsailetik aurrera modulu honetan aritzeko azaroko deialdian eman behar da izena.

Modulu honetan hiru ebaluazio egingo dira.

IVAPek matrikula gastuak hartuko ditu bere gain.

1.3.– Bi orduko ikastaroak.

Euskalduntzeko nahiz alfabetatzeko ikastaroak dira.

Ordutegiak:

Bilbao eta Donostia-San Sebastián 08:00-10:00 15:30-17:30

Vitoria-Gasteiz 08:00-10:00 14:40-16:40

Iraupena: Modulu horrek ikasturte osoko iraupena du; beraz, bigarren lauhilekoan ez da ikasle berririk onartuko.

Egutegiak:

a) Goizez: urriak 1 - maiatzak 28.

b) Arratsaldez: urriak 1 - maiatzak 27.

Ez da eskolarik izango Gabonetako oporraldian (abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra, biak barne), eta Aste Santukoan (martxoaren 29tik apirilaren 9ra, biak barne).

Arratsaldeko eskolak astelehenetik ostegunera bitartekoak dira administrazioko taldeetan.

Modulu honetan bi ebaluazio egingo dira.

IVAPek matrikula gastuak hartuko ditu bere gain.

el 3 de enero, ambos inclusive, corresponde al período vacacional de Navidades, por lo tanto no será lectivo.

Este módulo tendrá, en todo caso, una duración cuatrimestral. Para poder participar en este módulo a partir de febrero ha de inscribirse en la convocatoria de noviembre.

En este módulo se realizarán tres evaluaciones.

El IVAP se hará cargo de los gastos de matrícula.

1.3.– Cursos de dos horas diarias.

Son cursos de euskaldunización y alfabetización.

Horarios:

Bilbao y Donostia-San Sebastián 08:00-10:00 15:30-17:30

Vitoria-Gasteiz 08:00-10:00 14:40-16:40

Duración: la duración de este módulo abarca la totalidad del curso; por lo tanto, en el segundo cuatrimestre no se admitirán nuevos alumnos.

Calendarios:

a) De mañana: 1 de octubre - 28 de mayo.

b) De tarde: 1 de octubre - 27 de mayo.

No se impartirán clases durante el periodo vacacional de Navidades (del 24 de diciembre al 7 de enero, ambos inclusive) y de Semana Santa (del 29 de marzo al 9 de abril, ambos inclusive).

Las clases en horario de tarde serán de lunes a jueves en los grupos propios de la Administración.

En este módulo se realizarán dos evaluaciones.

El IVAP se hará cargo de los gastos de matrícula.